



**DEDESNDESNU-
TRIZIOARI BURUZKO
TXOSTEN
DIDAKTIKOA
2023-24**



**Save the
Children**

2023-2024 ikasturteko txosten honetan desnutrizioarekin lotutako egoera oso zehatz batzuetara hurbildu nahi zaituztegu, hamarkadetan bizi izan dugun gosete handiena bizitzen ari garelako, guztion artean aurre egin beharreko benetako larrialdi bat.

**Ez dago goseari aurre egiteko txertorik,
baina konpon daiteke orain ekinez gero**

Txosten honez gain, bertan agertzen diren kontzeptu asko azaltzen dituzten bideoak dituzue, baita gelan errealitate hau sakonago aztertzen lagunduko dizuten hezkuntza-ziklo bakoitzerako jarduerak ere, hainbat hizkuntzatan.



Edizioa:

Marisol Paniagua, Sara Adrián
y Alberto Fernández

Artea eta maketazioa:

Germán Gullón

AURKEZPENA

Ongi etorri beste ikasturte batez gure jarduera solidarioetara. Urtero geroz eta ikastetxe gehiago biltzen zarete, eta beraz, milaka ikaslek gertuagotik ezagutzen dute egoera zaurgarrietan bizi diren neska-mutilen errealitateak, eta errealitate horien ahots bihurtzen dira.

Haurren desnutrizio-egoerak nabarmen okerra egin du azken urteetan, batez ere, hiru arrazoiengatik: **klima-aldaketa, gatatzak eta COVID-19aren pandemiaren ondorioak**. Herrialde asko badaude ere arriskuan, guk hiru kasu zehatzez hitz egingo dizuegu: Afganistan, Niger eta Somalia, eta hiru gune horietan Save the Children-ek zer egiten duen ikusiko dugu.

Afganistango egoerak okerra egin du azken urteetan, batez ere, emakume, neskatila eta nerabeena. Etengabeko gatatzak ondorioz milaka pertsonak beren etxeetatik ihes egin dute babes bila, eta ondorioz, elikagaiak eta ur edangarria eskuratzeko zailtasunak dituzte.

Hamarkadetan zehar, Sahelen, Niger, Burkina Faso eta Malik osatuta eremuan, elikadura-ezegonkortasuna egon da; eta klima-aldaketak ondorio are lazarriagoak ekarri ditu elikagaiak sortu eta eskuratzeko orduan. Azken urteetan, ezegonkortasunaren igoerak eta indarkeriak krisi hori are gehiago larritu dute, eta merkatuetako, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak eten dituzte; ondorioz, jendea beste leku batzuetara joan da eta lurren eta baliabideen arteko lehia eragin du. COVID-19aren aurretik ere, elikadura-segurtasunaren egoera oso kezagarria zen Sahelen.

Somalia Afrikako Adarra deritzon eremuan dago, lurreko eremu zigortuenetako bat da eta elikadura-segurtasunerako inoizko mehatxu handienari aurre egin behar dio klima-krisien (lehorteak eta uholdeak), desertuko otien, ezegonkortasun politikoaren, gatatzak eta segurtasun ezaren, ezegonkortasun ekonomikoaren eta COVID-19aren pandemiaren konbinazioak eraginda. Eta hori guztia abereen galera orokortuak eta laborantza ezak etxe askotako diru-sarrerak apaldu zituzten aurreko lehorre larrietatik oraindik erreperatzen ari direnean komunitateetan gertatzen ari da.

Egoera oso zaurgarria duten lurreko toki desberdinetara egindako hurbilpen honi esker, desnutrizioaren aurka azken urteetan egindako aurrerapenetan atzeraka zergatik goazen uler dezakegu.



**MUGITZEN
BAZARA,
MUNDUA MUGITU
EGITEN DA**

BIZITZAREN LOTERIA

Denok ados gaude haurrek ez luketela goserik pasatu nahiko diogunean. Alabaina, munduko eskualde askotan, oraintxe deskribatu ditugunetan, esaterako, seme-alabek bizirauteko erabaki oso zailak hartu behar dituzten milaka familia daude. Munduan hiltzen diren haurren lehen kausa pobrezia dela esan genezake, baina pobrezia horri lotutako arrazoiak asko dira, eta arrazoi horien eragina jaiotako tokiaren araberakoa da.

Klima-aldaketak geroz eta hondamendi natural handiagoak eragiten ditu; lehorteek, suteek eta uholdeek uzten zikloa aldatzen dute eta horrek herrialde zaugarrienei eragiten die. Era berean, horrek beste ondorio batzuk ere baditu, immigrazioa, gatazkak eta prezioen igoera orokorra.

Zibilak biktima diren gatazka armatuak geroz eta gogorragoak dira. Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz, haziak eta ongarriak falta dira Afrikako Adarrean edo Sahelen. Eskualde horietako neska-mutilak ez ditu bonba batek hilko, baina bai gerraren ondorioz piztu den goseak, eta hori adibide bat besterik ez da. Afganistanen, Sirian edo Yemenen, jaiotze hutsa erronka bat da. Gose diren pertsonen % 60 gatazka-eremuetan bizi dira.

Gatazka horietan elikagaiak urritu egiten dira eta **prezioen igoerak** baliabide gutxien dituzten familiengan du eragina. Igoera horren ondorioz, animaliak saldu, aurrezkiak gastatu, otordu-kopurua gutxitu eta seme-alabak eta, batez ere, alabak, eskolatik atera behar dituztelako. Horrela, milioika neska-mutilen etorkizuna mehatxatuta geratzen da, pobrezia belaunaldi belaunaldi kolpatzen duelako, eta herrialde horiek ezin dutelako mendekotasun-zirkulu horretatik irten.

Testuinguru horretan, milioika pertsoneri, eta batez ere, milioika neska-mutilei, eragitendietenelikadura-ezegonkortasunarenegoerazohartarazidutenazioarteko erakundeek. Hamarkadetan zehar aurrera egin ostean, azken urteetan, aurrerapen horiek atzerapen bihurtzen ari direla ikusten dugu: 2009an desnutrizioa zuten 690 milioi pertsona zeuden munduan. Joera aldatzen ez bada, 2030erako zenbateko hori 840 milioira igoko dela aurreikusten da.

Save the Children-ek nazioarteko komunitateari deia luzatzen dio arrazoi sakonak konpontzen has dadin. Mundu-mailako gatazkak amaituta, klima-aldaketari aurka eginda eta komunitate erresilienteagoak eraikita soilik bermatuko dugu munduan gose gutxiago egotea. Hori lortzeko, gizartearen laguntza behar dugu, aldaketa sakonak gauzatzeko benetako motorra baita. Bienbitartean, baliabide ekonomikoek eta dohaintzek neska-mutilek bizirautea lor dezaten lagunduko digute.



**DESNUTRIZIOA
GOSEA BAINO
ASKOZ
GEHIAGO DA**

DESNUTRIZIOA: MOTAK ETA GEHIEN DAGOEN HERRIALDEAK

Askotan gosea hitza erabiltzen dugu desnutrizio-egoera bat aipatzeko, baina desnutrizioa gosea baino askoz gehiago da, gaixotasun bat da, eta ez da behar baino elikagai gutxiago (kopuruz eta kalitatez) jateagatik soilik sortzen, baita arreta egoki bat ez jasotzeagatik eta gaixotasun infekziosoak agertzeagatik ere. Beraz, desnutrizioa duen haur baten bizirautea arriskuan dago, baina bizirauten badu, eragina du haren garapen fisiko, kognitibo eta intelektualean ere.

Bi desnutrizio mota daudela esan dezakegu: kronikoa eta akutua, eta neurtzeko pertsonaren adinaren arabera altuera eta pisua erabiltzen ditugu.

Desnutrizio kronikoa

Desnutrizio kronikoa haurrak bere adinerako duen altuera txikiagatik zehazten da, eta pertsona batek hilabeteetan edota urteetan nutrienteak falta dituen dieta bat jaten duenean gertatzen da; adibidez, egunero arropa jaten duenean oinarritzko elementu bakar gisa. Desnutrizio kronikoak hazkuntzan atzerapenak dakartza, haurraren heldutasun mentalari ere eraginez.

Desnutrizio kronikoa ohikoagoa zen Asian eta Latinoamerikan, baina egun Afrikako herrialde askotara ere zabaltzen ari dela ikusten ari gara.

Desnutrizio akutua

Adinaren arabera altuerarako pisua txikia denean eta denbora-tarte laburrean garatzen denean gertatzen da, oso gutxi jateagatik asteetan. Beste gaixotasun batzuk ere izaten dira, adibidez, beherakoa eta kolera, eta arazo medikoak eragiten ditu.

Desnutrizio akutua bizkor identifikatzeko MUAC deritzon besoko bat erabiltzen dugu. Besoko horrekin, besoaren diametroa neurtzen dugu eta desnutrizioa akutua larria edo moderatua den ikus dezakegu. Semaforo baten moduan funtzionatzen du: berdea denean, ongi gaude; horia edo laranja denean, erdipurdi gaude eta Desnutrizio akutua moderatua deitzen diogu (ingelesezko siglen bidez ezagutzen da: "MAM"), eta gorria denean, Desnutrizio akutua larria (edo ingelesezko siglez: "SAM") daukagu. Kasu horretan bizkor jardun behar dugu.

DESNUTRIZIOAN SAKONTZEA AKUTU LARRIA

SAMen efektuak dira: zorabioa (ikusmen lausotua, ezin finkatu daitekeena), arnasa hartzeko arazoak, bihotz-taupada irregularrak eta erritmoa galduta, pentsamendu mantsoak, burua ezin esna mantendu, muskuluak uzurtze eta bizi-organoak handitzea eta abar. Laburbilduz, gorputzak kolapso fisiko eta mentalera iristen dira.


Desnutrizio akutua gora doa mundu guztian, eta 5 urtez azpiko haurren % 70ri eragiten dio. Munduan 181 milioi neska-mutil eta heldu arriskuan daude.

Asia eta Afrika dira gehien kolpatutako kontinenteak, eta guztira, 45 milioi neska-mutil daude desnutrizio-arriskuan. Espainiarekin alderatuta, 47 milioi pertsona bizi bagara, desnutrizioa duten haurren kopurua Espainiako biztanle guztien parekoa da. Zehazki, 14 milioi pertsonak, Madrilgo Erkidegoko eta Kataluniako biztanleak batuta lortzen den populazioak, desnutrizio akutua dauka.

Eta are gogorragoa dena, 5 urtez azpiko 5 haurretatik 1ek ez du lortzen desnutrizioa gainditzea, eta goseak gehien kolpatutako 15 herrialdeetan, minutuero haur batek desnutrizio akutua dauka.







SEKRETUA PREBENTZIOAN DAGO

SOLUZIOAREN GILTZA

Haur bat ospitalera iristen denean, osasun-langileek izan dezakeen desnutrizio akutua trata diezaioten, haur horrek biziraun dezan laguntzen ari diren pertsonak identifika ditzakegu, eta noiz behar den laguntza: ospitalera arte eramatea, tratamendu medikoa, ospitaleko egonaldia eta abar. Alabaina, halako kasuei arreta ematea bezain garrantzitsua da, kasu horiek prebenitzea.

Puntu horretan funtsezko papera du Save the Children-ek, eta agian hemen gutxiago ezagutzen dena. Izan ere, langile espezializatuak trebatzen baititu eta hasierako faseetan dauden desnutrizio-kasurik hautematen dituzten komunitate-sareak sortzen baititu, tratatzeko zailagoak diren kasu bihur ez daitezten.

Amak, haurdun daudenean, haurtxoari pasatu diezazkion beharrezko nutriente guztiak eskuratu beharko lituzkete, egoki haztea bermatuko dion guztian defizitirik izan ez dezan. Ama hori bizi den komunitateak ere garrantzi handia du, are gehiago osasun-zerbitzuak bizkor eskuratzea zaila den eremuetan.

Elikadurari eta higienari buruzko ezagutzarik ez dagoenean, arazo asko sor daitezke neska-mutilen hazkuntzan eta garapenean, oso litekeena delako maiz gaixotzea. Adibidez, Malawin, Scaling up Nutrition programaren bidez, trebatutako langileek elikaduraren garrantzia erakusten die irakasgaien eta praktiken bidez. Batez ere haurdunaldian eta edoskitzean dietaren garrantzi handian jartzen da arreta, baita haurtxoen adinaren araberrako dieta egokietan ere. Prestatu eta laboratu daitezkeen frutei eta barazkiei buruzko argibideak ere ematen dira, baita jateko eta saltzeko abereak hazteari buruz ere.

Save the Children-ek komunitateko bertako pertsonak trebatzen ditu, ez gaixotzeko ur garbia zein garrantzitsua den edo txikieneztat nutritiboenak diren elikagaiak zein diren bizilagunei transmititu ahal izateko testuingurua hoberen ezagutzen dutelako. Horrela, gaixotasunak eta desnutrizioa saihesteko ezinbestekoak diren ezagutzak eskura ditzakete denek, eta komunitatea bere garapenaren partaide izan daiteke ezinbestekoak diren gaietan parte hartuz, adibidez, neska-mutilen biziraupenean laguntzea.

Memoryren, Malawiko ama gazte baten, hitzekin amaituko dugu: «Edoskitzeari, higienari eta elikadurari buruzko ikasgaiak oso baliagarriak izan dira gure osasunerako, eta ez dago atzerapenik hazkuntzan. Nire semea oso osasuntsu hazten ari da, eta pisu normala du. Uste dut oso onuragarria izan dela niretzat eta ahaldunduta sentitzen naiz.»



**ZER EGITEN
DUGU SAVE THE
CHILDREN-EN?**

ZENBAKI POSITIBOAK: ZURI ESKER SAVE THE CHILDREN-EK EGITEN DUEN LANA

Gure lana ez da neska-mutilen eta nerabeen arretara soilik mugatzen, haurdun eta edoskitzen ari diren amei ere ematen zaie, ama osasuntsu badago eta desnutriziorik ez badu, haurtxoa askoz babestuagoa egongo delako eta desnutrizio-arazorik gabe jaioko delako. Funtsezko denbora-tarte bat dago, **“mila eguneko leihoa”**, haurtxoa sortzen denetik bi urte betetzen dituen arteko tarte. Mila egun horietan egiten ditugun ekintzek ondorio zuzena dute haurraren sistema immunitarioa eta digestiboa indartzeko, eta ondorioz, tratagarriak diren gaixotasunei aurre egin eta desnutrizioak berekin dakartzan epe labur eta luzerako ondorioak saihestuko dira.

Baina neska-mutilei zuzenean egindako ekintza zuzenak ez dira Save the Children-en ekintza bakarrak. Gure programa guztiak funtsezko hiru oinarriren gainean sustengatzen dira: **biziraupena, babesa eta hezkuntza**. Gure ekintzak zeharkako hiru helburu horiek betetzera bideratzen dira.



Osasun-etxeei laguntzea

Ospitaleei eta anbulatorioei laguntza ematen diegu tratamendu egoki bat eskaini eta elikagai terapeutikoa eta sendagaiak eduki ditzaten.



Osasun-langileen trebakuntza

Medikuak eta erizainak trebatzen ditugu, euren gaitasunak eta ikasketak, aldi berean, beste pertsona batzuei transmititu ahal izateko.



Haurren desnutrizioari buruzko informazioa

Desnutrizio-arazoak dituzten haurrak zaintzen dituzten pertsoneri baliabideei, tresnei eta gaitasunei buruzko informazioa ematen diegu.



Eskolak eta komunitate-sareak

Gobernuekin elkarlanean aritzen gara komunitate-sareak eta eskolak indartzeko, haurrei eguneroko otordu nutritibo bakarrak eskaini ohi zaien tokia izan ohi delako.



Ur edangarria

Ur edangarriaren puntuak birgaitzen ditugu eta ur garbia eskuratzea errazten dugu, higiene-ohiturak hobetu eta infekzioak saihesteko. Urrik gabe bizitzarik ez dagoelako.



Eskudirua

Eskudirua ematen diegu familiei higiene eta elikadura egoki bat bermatuko dizkien oinarrizko produktuak erosteko.



Klima-aldaketaren ondorioen aurkako baliabideak

Lehorteak jasaten dituzten laborantzei buruzko ezagutzak ematea komunitateei, baita abereentzako pentsua edo hazi erresistenteagoak ere.

SAVETHECHILDREN.ES-EN AURKITUKO GAITUZU!

Txosten honekin desnutrizioak haurren garapenean dituen ondorioak, gehien eragindako gunean zein diren eta ondorio lazgarri horiek geldiarazteko Save the Children-ek zer egiten duen erakutsi nahi izan dugu. Bizitzak salbatzeko epe laburrean erantzutea ezinbestekoa dela ikusi dugu, baina arrazoi sakonetan arreta jarrita haurrentzako aldaketa handiagoak sor ditzakegu. Urtez urte laguntzen diguzuen pertsonei esker, lortuko dugu. **Txosten honen informazioa osatzeko, ikusi gure webgunean ditugun baliabide gehiago, eta landu ikasleekin hurrek duten arazo larrietako bat: desnutrizioa.**

Bideoak eta jarduerak

Ikasleek termino batzuk ulertzeko gelan ikus ditzakezuen **azalpen-bideo** batzuk dituzue, baita zuen elkartasun-ekintzak testuingurua emango dioten **jarduera didaktikoak ere**.



Elkartasun-kilometroak
[savethechildren.es/actualidad/
propuestas-didacticas-para-el-aula](https://savethechildren.es/actualidad/propuestas-didacticas-para-el-aula)



Orri-markatzaile solidarioak
[savethechildren.es/actualidad/
propuestas-didacticas-para-el-aula-marcapaginas](https://savethechildren.es/actualidad/propuestas-didacticas-para-el-aula-marcapaginas)

Sartu QR honen bidez,
prestatu ditugun bideoak ikusteko



Ohiko galderak eta kontu-zenbakia

Webgunean gure erakundeari buruzko **ohiko galderak** eta gure jarduerak ikusiko dituzue. Bertan, **bildutako dirua sartzeko kontu-zenbakia** ere aurkituko duzu, diru-sarrera solidario hori egitean ordainagiri bat eta zuen hezkuntza-komunitatearekin partekatzeke eskerrak emateko diploma bat bidaliko dizkizuegu.



Jaso dugu dirua. Eta orain, zer?
savethechildren.es/centros-educativos/recaudacion-coles

DESNUTRIZIOAREN AURKAKO ESKOLA-UHOLDE BATEN ALDE

Save the Children-en ekintzaren protagonista den ikasleen alde egiten dugu. Mundua aldatzeko mobilizatzen diren haurrak enpatiaren, jasangarritasunaren eta elkartasunaren balioetan hezitako haurrak dira.

**Bihur zaitetze haur zaugarrienen ahots,
eta guztion artean, gosea baino lehen iritsiko
gara helmugara.**

**Mobiliza zaitetz hemen: [savethechildren.es/
movilizacion-coles](http://savethechildren.es/movilizacion-coles)**



**MUGITZEN BAZARA,
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



Save the Children